

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunak oihartzuna izango du gaur

**Pat Mora idazlearen testua eta Ashley Bryan ilustratzailearen
kartela zabaldu, eta askotariko ekitaldiak antolatu dira**

ERREDAKZIOA. DONOSTIA

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da gaur, apirilaren 2a, eta, urtero bezala, haur liburuaren garrantziaz ohartarazten duen mezu bat eta kartel bat zabalduko ditu IBBY haur liburua bultzatzen duen nazioarteko elkarteak mundu osoan, Euskal Herrian Galtzagorri elkartearren bitartez. Aurtengo testuaren egilea Pat Mora idazle mexikar-estatubatuarra da, eta kartelarena Ashley Bryan ilustratzaile estatubatuarra. Pat Moraren testuaren euskarazko itzulpena Juan Kruz Igerabidek egin du Galtzagorri elkartarentzat.

«Irakurri, irakurri / bai zuk, bai nik», dio Pat Morak idatzi duen testuaren hasierako paragrafoak. «Horra letrak, horra hitzak, / horra liburuak hitzez beterik... / esku artean jasotzen ditut nik».

Euskal Herriko hainbat liburutegitan Haur Liburuaren Nazioarteko Egunarekin zerikusia duten askotariko ekitaldiak izaten ari dira egunotan — ipuin kontaketak, lehiaketak, tailerrak, hitzaldiak... —, gaur bereziki.

Iurreta Herri Biblioteka, Azkoitiko Aizkibel liburutegia, Leitzako Liburutegia, Tolosako Haur Liburutegia, Mutrikuko Udal Liburutegia, Eibarko Juan San Martin liburutegia, Arrasateko Udal Biblioteka eta Donostiako Udal Liburutegi Sarea dira ekitaldiak antolatu dituztenetako batzuk. Haurrei liburuekin gozaraziz, irakurtzeko zaletasuna sustatzea dute xede antolatutako ekitaldiek.

Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau:
www.galtzagorri.org